Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Sesma Erezuma Bikidxa

Lekeitio, Bizkaia
(1926)



Aurkibidea

Biografia



1926. urtean sortu zen Monseñor Azpiri kalean. Aita ere arrantzale lekeitiarra zuen eta ama Aulestiko Santa Eugeniakoa, "Lauaxeta"ren lehengusina. Familiatik datorkio itsasoarekiko lotura: 1931. urtean bere aitak baporea egin zuen eta bera ere 15 urterekin sugin (fogonero) hasi zen; gerora, makinista bezala ibili zen. Hori dela-eta oso ondo ezagutzen du bizimodu hori. Gerra garaian, Aulestiko Malaxen egon zen osabarenean. Argazkilaritza da bere zaletasun nagusia: Lekeitioko 16.000 argazki baino gehiago ditu. 16 urtetatik 80ra arte San Pedro Kili Kalian parte hartu izan du. Txiste-kontalari trebea ere bada. Hainbat tresna eta objektu zahar gordetzen ditu: arrantzakoak, zilarrezko txanponak, argazki- eta bideo-kamerak...

Zintak

LEK-032

- **Proiektua**: Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-12-02
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

LEK-033

- **Proiektua**: Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-12-02
- **Iraupena**: 54 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

LEK-034

- **Proiektua**: Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-12-02
- **Iraupena**: 30 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Lehengo Lekeition denak lagun

- **Erref**: LEK-032/004
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:07:30. **Bukatu**: 00:08:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Etxeetako ateak zabalik egoten ziren, giltza barik. Guztiek elkar maite zutela dio. Miseria eta gosea ezagutu zuten, baina beti zeuden elkarri laguntzeko prest.

2. 15 urterekin "Nuestra señora del Socorro"n

- **Erref**: LEK-032/007
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:11:10. **Bukatu**: 00:13:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:
Portuko antzinako argazki bat erakusten du. Baporeak ikatzarekin ibiltzen ziren. 1931n bere aitak-eta "Nuestra señora del Socorro" egin zuten. Jose 15 urterekin hasi zen galdara-makinak pizten. Irabazitako guztia amari ematen zion; amak seitik bat ematen zion berari.

3. Itsasorako behar ziren dokumentuak eta tituluak

- **Erref**: LEK-032/008
- **Iraupena**: 0:04:07. **Hasi**: 00:13:03. **Bukatu**: 00:17:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:
Itsasoko titulu desberdinak erakusten ditu: 1946ko "Nombramiento de segundo mecánico naval", "Libreta de inscripción marítima".... 14 urtegaz itsasora joateko behar zuen dokumentua ere erakusten du. Ganbaran ikasten zuten. Nautikako eskolara etortzen ziren maisuak irakastera.

4. Dei egitekoak eta señeroak

- **Erref**: LEK-032/009
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:17:10. **Bukatu**: 00:19:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:
Gizonak itsasora joateko zelan abisatzen zituzten azaltzen du. Dei egitekoak joaten ziren eguraldi ona eginez gero. Txarra eginez gero, aldiz, "txarrastadia" izeneko palo batekin joaten ziren zarata eginez jendeak jakin zezan itsaso zatarra zegoela. Señeroek eguraldiaren berri ematen zuen. Kabana asko zeuden herrian, arrain-fabrikak, 12 bat egon ziren. Atuna bisiguaren karnatarako erabiltzen zen. 200 bat arroa (12 kilo) izaten zituzten gatza emanda horretarako.

5. Bisigutarako lan-tresnak eta kalak

- **Erref**: LEK-032/011
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:19:36. **Bukatu**: 00:23:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:
Bisigua zelan harrapatzen zuten kontatzen du.: tuntuxa, tretzak, aparailuak... Goizeko laurak aldera joaten ziren Garganto aldera, Lekeitiotik 40 itsas milia ingurura. Beste kala batzuk ere aipatzen ditu: Takarako 15 miliatara, Harritxu zazpi-zortzi miliatara...

6. Bisigutarako prestaketa

- **Erref**: LEK-032/012
- **Iraupena**: 0:03:47. **Hasi**: 00:23:03. **Bukatu**: 00:26:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:
Bisigutan irten aurretik tretzak enkarnatu behar ziren. Umetan ere askotan ez ziren joaten eskolara lan egin behar bazuten. 160 amu eta 60 tretza erabiltzen ziren. "Txitxiña" esaten zaio enkarnatzeko erabiltzeko erabiltzen zuten antxoa edo bokarta. Harria botatzen zen tretza bota aurretik, gero berriro ere harria eta tuntuxa.

7. Bisigutako arrantza

- **Erref**: LEK-032/013
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:26:50. **Bukatu**: 00:29:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua

Laburpena:
Bisigutarako tretzak bota ostean ordu betez egon behar zen zain gutxi gorabehera.

Alarreoan papardoak harrapatzen zituzten. Tretzak, tuntuxa eta gainerakoak zelan batzen zituzten azaltzen du. Kintaleko (50 kilo) otzaretan gordetzen zituzten. Bisigua neguko arraina izan arren abuztuan ei du koipe gehien.

8. Bisigutarako bakoitzaren eginbeharrak

- **Erref**: LEK-032/015
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:29:29. **Bukatu**: 00:32:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:
Gabonetan ere bisigutan ibiltzen ziren. Urte bateko garai hura dakar gogora, laino asko zegoena eta aurrekorik ere ikusten ez zutena. Bakoitzak bere eginbeharra zuen, berea makinak martxan jartzea eta tuntuxa hartzea zen. 15-16 lagun ibiltzen ziren lanean. Guztira 600 arrantzale ziren herrian.

9. Itsas-txoriak

- **Erref**: LEK-032/016
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:32:13. **Bukatu**: 00:33:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Flora

Laburpena:
Itsasoko txoriak: kopla, martina, txirrina, kala-txoriak... Txirrina atunetan ibiltzen zen. Bisigutan santzak ibiltzen ziren. Kaioa beltza da eta zuritzen denean, santza da. martina arrastean ibiltzen dira. Bokartetan santza ere ibiltzen zen. Josek dio gaur egun ez direla kala-txoriak ikusten; lehen harrapatu eta saldu egiten ziren saltzeko, gozoa ei zen.

10. Izurdeei segika antxoa harrapatzeko

- **Erref**: LEK-032/017
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:33:45. **Bukatu**: 00:35:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Natura » Flora

Laburpena:
Izurdeek bokarta jaten dute. Hori dela-eta, lehen radarrik ez zegoenean, ontziak izurdeei segika egoten ziren antxoa non zegoen jakiteko

11. Itsasoko esaera zaharrak

- **Erref**: LEK-032/019
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:35:11. **Bukatu**: 00:35:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:
"Santa Katalina noiz da? bisigutarako goiz da", "Ama Birjina martiko, arraina atateko", "San Anton besugo al montón"... Tartean berak asmatutako bat ere esaten du.

12. "Agostuaren lelengo hogeta batian..." abestia

- **Erref**: LEK-032/020
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:35:50. **Bukatu**: 00:36:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Txikiteroak tabernarik taberna abesten egoten ziren. Abesti bat abesten du: "Agostuaren lelengo hogeta batian, pasa zirian txalupa batian...".

13. Trainak bota eta batu

- **Erref**: LEK-032/024
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:40:00. **Bukatu**: 00:41:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:
Antxoatako traina 60 braza ingurukoa zen. Zelan botatzen eta batzen zuten azaltzen du.

14. Banaketa buru gainean eta gurdiz

- **Erref**: LEK-032/025
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:41:25. **Bukatu**: 00:43:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
Arrainen deskarga otzaretan egiten zuten. Otzarak zelakoak zirena azaltzen du. Saltzera buru gainean eta gurdian eramaten zuten. Josek gomazko gurdi bat egin zuen freno eta guzti. Buru gainean sorkia jartzen zuten otzara jarri aurretik.

15. Atunak harrapatzeko tresnak

- **Erref**: LEK-032/026
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:43:37. **Bukatu**: 00:45:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:
Atunetan kazan aritzen ziren, txitxarrotan moduan. Karpinak, gartxak, soka eta maimena erabiltzen ziren aparailu moduan.

16. Jela; elur-fabrikak

- **Erref**: LEK-032/030
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:48:30. **Bukatu**: 00:50:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
Hiru matxin zeuden, hiru garabi. Atuna izotzarekin, jelarekin, gordetzen zuten hozkailuetan. Lekeition elur-fabrika bat egon zen, Txopi.

17. Mendexarako zubiko aduana

- **Erref**: LEK-032/031
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:50:17. **Bukatu**: 00:51:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Herria, azpiegitura

Laburpena:
Aduana polita Mendexako zubian zegoela dio. Gerran erre egin zuten. Gerran, 11 urte zituela, arreba lepoan hartuta zubia zelan pasatu zuen gogoratzen du.

18. Ikatzetan Ondarroara

- **Erref**: LEK-032/032
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:51:54. **Bukatu**: 00:52:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:
Ikatza zein gasolioa erabiltzen zuten,. Ikatz bila Ondarroako Pontixenera joaten ziren, haiek ekartzen zuten eta.

19. Txipiroitan

- **Erref**: LEK-032/033
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:52:57. **Bukatu**: 00:54:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak

Laburpena:
Txipiroiak zelan arrantzatzen zituzten kontatzen du.

20. Gomekin diru asko irabazitakoa

- **Erref**: LEK-032/034
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:54:03. **Bukatu**: 00:56:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:
Diru gehien atunak ekarri zuen. Baina gomatan diru asko hartu zuten, beraiek 10.000 mila pezeta hartu zituzten buruko. II. Mundu Gerrako merkataritza-ontzi bat hondoratu zuten eta 6.000 fardo inguru jaso zituzten. Kiloa 10 pezetatan saldu zuten; estraperloan 3.000 pezetatan egon zen.

21. Itsasorako arropak

- **Erref**: LEK-032/035
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:56:25. **Bukatu**: 00:58:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:
Erretzen zirenean, "Nivea" ematen zuten. txapel gutxitan janzten zuten. Mahoizko arropak erabiltzen ziren. Eskuetan ez zuten babesgarririk erabiltzen.

22. Diru-partiketa

- **Erref**: LEK-032/036
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:58:20. **Bukatu**: 00:59:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:
Diru-partila egiteko, lehenengo gastatutako dirua hartzen zen eta gainerakoa, erdi eta erdi arrantzaleen eta baporearen artean banatzen zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-26

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com